

KANPOKO LEGEAK.

Haskaria aterbean hartzen da eta hundarra konpoztan emaiten da.

Goxotasuna, erosotasuna, janariaren errespetua

Ikastolaren materiala zaintzen eta errespetatzen da.

Erosotasuna, materialaren errespetua

Harriak lurrean uzten dira.

Segurtasuna, alaitasuna

Gudroina den bezala uzten da (xilorik egin gabe, zatirik hartu gabe...)

Lanaren errespetatua, sekuritatea

Ura eta esnea aterbean edaten dira eta basoak mahainean uzten. Ura eta esnearen mahainak berexiak dira, basoak ere.

Lasaitasuna, sinpletasuna

Aire hartzean kanpoan egoiten gira, gelara sartzen ahal da jantzi baten uzteko edo hartzeko.

Goxotasuna, segurtamena materiala errespetatua dela eta gelak prest direla.

Kanpoko eremua bustia delarik, euria ari delarik, haundien gela erabiliko da. Karta joko, marrazketa... egiteko.

Leku/espazioa, goxotasuna, erosotasuna

Aro ederretan ikastolako materiala erabil daiteke, belarrean ere.

Materialaren errespetua, sekuritatea

Etxeko jostailuak (errotilako zapetak barne) etxean egoiten dira.

Zuzentasuna

Hurtzaindegian, ibilgailurik ez da erabiltzen.

Segurtasuna, lasaitasuna

Baloinak jostatzeko dira eta kutxan biltzen dira.

Erosotasuna, materialaren errespetatzea

Bakoitzak bere hortz eskuila badu, beretzat bakarrik, erabilia biltzen da.

Erosotasuna, norberaren errespetua

Ur botelak ura edateko dira, ixurtzen badira segidan lehortzen da.

Erosotasuna

Komunetara banaka sartzen da, aterbeko zaintzaleak lepokoa eman eta.

Goxotasuna, intimitatea

Kantinan hiru mahain haundi dira, 18rentzat. Lehen 18ak sartzen dira, lekuak libratu arau besteak.

Antolaketa, espazioa.

ORROIT!

	Kanpoko eremua bustia	Kanpoko eremua idorra
Ibilgailu txikiak	BAI	BAI
Ibilgailu haundiak	EZ	EZ
Sokak, raketak, baloinkak...	EZ	BAI
Gela lasaia	BAI	EZ